

Kirola

Surfaren inguruko azoka txikia bihurtuko da Plateruena Kafe Antzokia zapatuan > 17



Krisiaren San Blasetan, jai giroa bazterretan

Abadiñoko Udalak ekoizleentzako sariak kendu ditu krisiaren eraginez > 3



KOART 903

Sukaldeak - Bainugelak - Horma-armairuak

Fabrikatzaileak gara eta espazio bakoitzaren neurrirako irtenbideak topatzen ditugu

Eltua Ind. 9 - 6 behea - BERRIZ - Tel. / Faxe: 94 682 68 79

Durangaldea > 7

MZk aurkeztutako erregulazio espedientea balio gabetuta

Durango > 3

Euzkitzek Aizpea Goenaga elkarrizketatuko du

Abadiño > 4

Argiteriaren aldaketak herritarren kezak jaso ditu

Iurreta > 8

Gizarteratze zentro bat zabaltzen lagundu du udalak

► Herririk herri

► DURANGO



Geltoki zaharraren atzealdeko sarbidea (ezkerrean), eta igogailurako sarrera Askatasun etorbidean (eskuman).

Udara arte, irisgarritasun eta komun falta tren geltokian

Geltokiaren sarbideek eta komun faltak erabiltzaileen protestak eragin dituzte; ETSk adierazi du dagoeneko hamar kexa ofizial jaso dituztela

► MARKEL ONAINDIA

Tren geltoki berriaren sarbideek eta komun faltak erabiltzaileen protestak eragin dituzte eta, zabaldu eta hilabetera, ETSk adierazi du dagoeneko hamar kexa ofizial jaso dituztela. Bada, udara arte, irisgarritasun arazoekin eta komunik barik jarraituko du geltokiak. Izan ere, sasoi horretarako aurreikusten dute obra bi amaitzea: mendebaldeko sarbide berria eta merkataritza gunea. Sarbide horrek

beste igogailu bat edukiko ei du, eta merkataritza gunean komunak egongo dira. Ana Isabel Oregik, Ingurumen eta Lurralde Politikarako sailburuak, eman du

Udarako aurreikusten dute obra bi amaitzea: mendebaldeko sarbidea eta merkataritza gunea

egitasmoaren egoeraren berri EH Bilduk galdetuta.

Igogailu bakarra

Gaur egun, geltoki zaharraren atzealdean dagoen sarreratik joan behar dute erabiltzaileek. Hiru eskailera tarte daude jais-teko, bi ohikoak eta bakarra mekanikoa. Euria eginez gero, ohiko eskailera labainkorak izan ahal dira. Gainera, gurpildun aukietan doazenentzako zein umeen kotxeagaz dabilzanen-

tzako igogailu bakarra Askatasun etorbidean dago, oraingo sarbideetik aparte.

Gainazalerako, diseinurik ez

Bestalde, gainazalean libre geratuko den lursailaren egoeraz ere galdetu dio EH Bilduk sailburuari; 60.000 metro karratutik gorako azalera da. Oregik esan du bertan 500 etxebizitza eraikiko direla, eta 25.800 metro karratu hiri-parkea egiteko izango direla. Baina, oraindik proiektua diseinatu barik dagoela azaldu du, eta horren ostean erabakiko dela Jaurlaritzaren eta udalaren artean zelako hitzarmena egin obra finantzatzeko.

Trenaren lurperatzea gertakari garrantzitsua dela esan du Oregik: "Komunikabidea zena, udalerrri barruan komunikatzeko oztopo nagusi bilakatu zen".

Baina, azaldu du oraindik lanak falta direla *Durango Operazioa* amaitzeko, eta egitasmoa gorai-patu du: "Durangoko hirigunearen biziberritzea ahalbidetuko du".

Gaur egun, geltoki zaharraren atzealdean dagoen sarreratik joan behar dute erabiltzaileek

Gainazalean libre geratuko den lursailaren egoeraz ere galdetu dio EH Bilduk sailburuari

Trenbide zaharreko lursailean zer egin aztertuko dute ikasleekin

Ermodotik Landakoraino dagoen trenbidearen lursailean zer egin ahal den proposatuko dute gazteek, mugikortasun irizpideak kontuan hartuta

► M. O.

Tren geltoki zaharraren lursailetan egingo den proiektuak denbora beharko du oraindik egia bihurtzeko. Baina, Durango zeharkatzen duen trenbide zaharrak ere, emango du gune berriak sortzeko aukera libre geratzerakoan. Udala hasi da egoera hori aurreikusten, eta bertan zer egin zehaztu aurretik, herritarren iritzia jakin gura du. Kasu honetan, sektore jakin bat hartu du lagin moduan: Durangoko DBHko ikasleak. Ermodotik Landakoraino

dagoen lursailean zer egin ahal den aztertuko dute gazteek, mugikortasun iraunkorraren irizpideak kontuan hartuta. Ikastetxe guztietako DBHko ikasleek parte hartuko dute, eta amaierako proposamena udalaren esku utziko dute. Joan zen asteburuan egindako Berdeago azokan aurkeztu zuten partaidetza prozesua.

Ekainera bitartean, bost taler egingo dituzte teknikariek ikasleekin. Gero, urrira arteko fasean, proposamenak batu eta teknikoki landuko dituzte. Az-

kenik, lanaren laburpena egingo dute.

Arduradunen arabera, lursail horretako proiektua herria kohesionatzeko aukera bat da, eta mugikortasuna eta irisgarritasuna bultzatuko ditu.

PSE-EEren eskaera

Pilar Rios Durangoko PSE-EEko zinegotziak trenbide zaharreko lursailean oinezkoentzako behin-behineko hiru pasabide eskatu ditu prentsa ohar bidez jakitera eman duenez. Riosen dioenez, "EAJren ges-



tio txarrak parte-hartze prozesuan atzerapena ekarri du, eta baita libre geratu den lursailaren urbanizazioan ere". Oinezkoentzako hiru pasabideei dagokionez, Urizarri eta Ibaizabal kaleen loturan, Pedro Pablo Astarloa eta Ibaizabal kaleen artean eta Fauste Behekoa-Untzillatz eta Fauste kaleak elkartzaren diren puntuan jarri beharko li-

rateke. Gaineratu duenez, diseinuaren inguruan gazteei iritzia eskatzeaz gainera, Agenda 21eko forora ere zabaldu beharko litzateke eztabaida.

Riosen berbetan, "Urkullu jaunaren argazkiez eta bisitez gainera, Eusko Jaurlaritza berriari eskatzen diogu aurretik jarraitutako proposamen zehazten eta irtenbideen bidetari eki-

Kazetarien eta gonbidatu ezagunen arteko solasaldiak

Datorren egunean hasiko da Berbertan zikloa; Euzkitze eta Goenaga egongo dira aurrez aurre

> MARKEL ONAINDIA

Datorren egunean hasiko da Plateruena kafe antzokiak antolatzen duen Berbertan solasaldi zikloa. Hirugarren edizio honetarako, Aizpea Goenaga, Alber-

to Iñurrategi eta Iñaki Perurena gonbidatu dituzte, eta Xabier Euzkitze, Amets Arzallus eta Urko Aristi izango dira elkarrizketatzaileak, hurrenez hurren. Gonbidatuak ziztatu eta haritik tiratzea izango da kazetarion lana, eta publikoaren galderei ere lekua egingo diete. Sarrera debalde da.

Honetaz eta hartaz

Aurtengo gonbidatuek badaukate zer kontatua. Euren lanari eskerrak, ezagun egin dira etxean eta kanpoan, eta euren bidez euskal kultura ere ezagunagoa egin dela esan daiteke. Solasaldi zabalak izango dira, honetaz eta hartaz berba egitekoak: sorkuntza, hizkuntza, kultura, tradizioa...

Lehenengo saioan -otsailak 7, 20:00etan- Xabier Euzkitze eta Aizpea Goenaga egongo di-



Aizpea Goenaga eta Xabier Euzkitzeren arteko solasaldia datorren egunean izango da, 20:00etan.

ra aurrez aurre. Telebistan, zinean eta antzerkian egindako lanagatik da ezagun Goenaga; aktore, zuzendari eta gidoigile ibili da, gainera. Baina, gaur egun, Etxepare Institutuko zuzendaria da, eta nazioartean euskal kulturaren eta sortzaileen berri

ematea da bere ardura. 2010ean hartu zuen kargua.

'Zilarrezkoak' sailean

Platerueneko kultura taldeak sortutako *Zilarrezkoak* sailaren barruan dago Berbertan ekimena. Egitasmo berezi horien hel-

buru nagusia euskarazko kultura gaitz parte-hartzailea sustatzea da. Horrez gainera, gizarte gaiak jendarteratzeko eta kulturartekotasuna lantzeko gogoz jaiotakoak dira. Egunean izango da hurrengo hitzordua, Berbertan zikloaren hasieragaz.

Otsailaren 14an: Amets Arzallusek Alberto Iñurrategi

Alberto Iñurrategi aretxabaletarra Euskal Herriko mendizale arrakastatsuenetakoa da, eta kanpoan ere sona handikoa da. Anaia Felixegaz batera zortzimilako mendiak egiten egin zen ezagun, eta hamalautik hamabi egin zituzten batera.

Hain zuzen ere, hamabigarrenetik jais- ten zebiltzala hil zen Felix, Gasherbrum II mendian. Alberto 2002an sartu zen hamalau zortzimilakoak igo dituzten mendizaleen talde loriatsuan.

Baina, helmuga horretara ailegatu arren, erronka berriei heltzekoa izan da beti Iñurrategi. Hainbat espediziotan parte hartu du, eta azkenaldian diziplina berri batean murgildu da: Groenlandia eta Antartika oinez zeharkatu ditu, Mikel Zabalza eta Juan Vallejogaz batera.



Otsailaren 21ean: Urko Aristik Iñaki Perurena

Gizon polifazetikoa da Iñaki Perurena leitzarra. Harri-jasotzen markak egiteagatik egin zen ezagun, eta herri-kirol hori Euskal Herritik kanpoko telebistara ere eroan zuen. Harakina ofizioz, ETB 1 telebista kateko Goenkale telesai-

lean hasi zen aktore lanetan. Antzezpena ez da bere kultur afizio bakarra, bertsogintzan eta kantugintzan ere ibilia da-eta. Gaur egun eskulturagaz lotutako proiektu batez dihardu: Peru-Harri. Harriaren inguruko museoa egin du bere baserriaren bueltan, eta horren bidez kulturaren eta historian sakontzea dauka helburutzat.

Izan ere, historiazalea ere bada Perurena, eta telebistan zein Interneten interes handia sortu izan dute bere iritziek.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carniceria autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Hurrengo eraikuntza



DURANGO



IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea - 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

Elorrion ere aukera onak

> ABADIÑO

Argiteria aldaketagaz “auzoa ilunpetan” dagoelako kexu

Kontsumo baxuko kale argi berriekin ez daude gustura hainbat herritar



Urte amaieran ipini zituzten argi berriak Gaztañodi inguruan.

> ITSASO ESTEBAN

Herriko hainbat gunetan kontsumo baxuko kale argiteria ipintzen dihardu udalak, urte amaieratik. Argindar kontsumoa gutxitzea gura dute horrela, baina hainbat herritar kexu da aldaketagaz. “Auzoan argi gutxiago” dagoela, eta “horrek segurtasun eza” sortzen duela diote auzotarrek.

Argindarraren kontsumoa %75 jaitsiko da, gobernu taldeak dioenez, farola zaharrak aldatuta

Gobernu taldeak zabaldu duen oharrean azaltzen denez, argindarraren kontsumoa %75 jaitsiko da farolak aldatuta, eta urtean 14.883 euro aurreztuko du udalak. Errota, Itxurritxo,

Txanporta eta Zeletabe kaleetan, eta Artako eta Gorabiderako bidean ipiniko dituzte LED teknologiako argiak. Farolak aldatzeko, berriz, 160.840 euroko inbertsioa egingo du udalak.

Urte amaieran ipini zituzten argi berriak Gaztañodi inguruan ere, eta ordutik hona, udaltxean euren kexa agertu dute hainbat auzotarrek. Argindar kontsumoan aurrezteko oso helburu aproposa ikusten dutela diote auzotarrek, baina ipini dituzten farolen diseinuagaz ez dela asmatu uste dute. Egoera hori konpontzeko beharrezko neurriak har ditzala eskatu diote auzotarrek udalari.

Udalbatzarrean ere berbaigai hartu zuten Zelaietako argiteria berriaren gaia: Jose Luis Navarro alkateak azaldu zuenez, badabilta zerbitzua hobetzeko probak egiten, Gaztañodi inguruan farola altuagoak eta indar handiagokoak ipintzen.

Udaleko langileen zerrenda finkatzeko Enplegu Plana diseinatu gura dute

1995etik eguneratu barik zeukaten zerrenda; abenduan onartu zuten

> I.E.

Abendura arte, 17 urtean eguneratu barik egon da Abadiño Udaleko langileen zerrenda. Abadiño Independentek taldearen eta EA Jren aldeko bozkekin onartu zuten, abenduko batzarrean, 50 lanpostu barne hartzen dituen zerrenda. Gaur egun, zerrenda horretan jasotako lanpostuetatik 33 daude beteta; 7 lanpostutan behin-behineko kontratua daukate; mugabako kontratua 8an; eta bete barik daude beste bi.

Abstenitu egin zen bozketa hartan Bildu: “Urrats garrantzitsua da, baina ez da nahikoa”, esan zuten. Udaleko Enplegu Plana egiteko beharra nabar-

Enplegu Planaren gaiari datorren asteko batzordean helduko diotela dio alkateak**EA Jren aldeko bozkekin onartu zuten lanpostuen zerrenda: 50 lanpostu barne hartzen ditu**

mendu zuen Bilduk abenduko udalbatzar hartan, eta beharri hori azpimarratu du beste behin, martitzeneko udalbatzarrean ere. Enplegu Plana garatzeko beharra udaleko hiru alderdiek ikusten dutela, eta gai horri datorren astean helduko diotela erantzun dio Jose Luis Navarro abadiño alkateak Bilduri.

Abenduan onartu zuten udaleko langileen zerrendan aldaketa bat egiteagaz ados agertu dira, bestalde, asteon, udaleko hiru alderdiak: abenduko zerrendan obra eta zerbitzuen atalean sailkatu zuten lanpostu bat, “eskoletako mantentze-lanetarako langile” izendatu dute.

> I.E.

2011ko irailean zabaldu zutenetik, Traña-Matienako erabilera anitzeko eraikinaren erabiltzaileek egindako eskaeretako bat burutuko du Abadiño Udalak datozen asteetan: aldatu egingo dute kiroldegia zoruua.

Eskolako umeek zein futbito taldeek erabiltzen dute azpiegitura hori kirola egiteko, eta asfaltozko zoruagaz lesionatzeko arrisku handia dagoela esan dute inauguratu zutenetik. Horrela, pozik hartu dute erabiltzaileek Jose Luis Navarro alkatearen iragarpena.

Miloi erdi euroko aurrekontuagaz egin zuten Traña-Matienako kiroldegi aurrefabrikatua, “herriko kirolariei herrian jarduteko aukera eskaintzeko”, besteak beste.

Matienako kiroldegiko zoruua aldatuko dute

Pozik hartu dute erabiltzaileek iragarpena



Asfaltozko zoruagaz lesionatzeko arrisku handia dagoela diote erabiltzaileek.

> IZURTZA

Konposta egiten dutenak bisitatuko dituzte otsailean

Konpostaje programan dauden 24 lagunak etxetik etxe bisitatuko dituzte Azterlaneko ordezkariak

> JOSEBA DERTEANO

Urriaren bere etxean konposta egiteko programa abiatu zuen udalak. Aldundiko dirulaguntza baten bidez, konpostagailuak erosi, herritarren artean banatu eta Azterlan ikerketa zentroaren esku utzi zuten kudeaketa eta ondorengo jarraipena egitea. Orain, otsailean zehar, Azterlaneko ordezkariak etxean konpostagailua ipini zuten 24 izurtzarrak bisitatuko dituzte, dudak argitu, gomendioak eman eta okerrak zuzentzeko. Janari eta mate-

rial gehien erabiltzen duten lekuetatik hasiko dira, Izurtzako Etxaburu dorreko aterpetxetik. Apurka-apurka etxebizitza denetara deitzen joango dira, hitzorduak zehazteko. Oraindik konpostagailuak eskuragarri daude udaltxean.

Dudak argitzen

Hilabete hauetan zehar, dudak telefonoz argitzen saiatu dira. Esaterako, herritar bik konpostaje prozesua arintzeko produktuen erabileraren gainean galdetu diete.

> GARAI

Udalaren webgune berria erabilgarri dago

Interneteko ‘www.garaikoudala.org’ helbidean ipini du martxan udalak webgune berria

> MARKEL ONAINDIA

Udalagaz traturako beste era bat daukate dagoeneko garaitarrek. Webgunea martxan ipini du Interneteko www.garaikoudala.org helbidean. Udalaren eta herriaren informazioa, batzarren aktak, deialdiak, elkarrean zerrenda... Hainbat ataletan banatuta dago ataria. Gontzal Sarrigoitia alkateak oharra plazaratu du webgunean bertan: “Udalaren gaineko in-

formazio zabalena ez ezik, zerbitzuak eta baliabideak ere eskura jartzen dizkizugu”.

Turismoari begira

Gainera, Turismoa atalak informazio ugari eskaintzen du kanpotik datozenentzako ere. Bizkaiko Foru Aldundiaren BiscayTIK egitasmoaren barruan eratu du udalak webgunea. Hilabeteetan ibili dira beharrean.

ALMACENES ARRASATE



TIEN 21

Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industriegunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



ROOMBA 620
349 € **iRobot**



A+ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA 3TS865E
299 € **Balay**



A++ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA WM14E470EE
420 € **SIEMENS**



A+++ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA F-8212
430 € **FAGOR**



A+++ Saikapen energetikoa
GARBIGAILUA WAQ24468EE
465 € **BOSCH**



8 kg kondentsazioa
LEHORGAILUA WTE86111EE
465 € **BOSCH**



8 kg kondentsazioa
LEHORGAILUA SF820CE
399 € **FAGOR**



LABE PIROLITIKOA 6H-760AX
450 €
INDUKZIOA IF-33BS
430 € **FAGOR**



LABE PIROLITIKOA HB74AS551E
499 €
INDUKZIOA EH651TK11
465 € **SIEMENS**



LABE PIROLITIKOA BP3313091M
475 €
INDUKZIOA HK633220XB
445 € **AEG**

PREZIO BEREZIAK

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETARAKO

FAGOR edesa

BOSCH Balay

AEG SIEMENS

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. **MCCko kooperatibistentzako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.



ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA JASOKO DA

MERKEAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA

GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU

+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

> OTXANDIO

Ohiko zerbitzuetan, kanpora ateratako zerbitzuetan bakarrik egin dituzte doiketak.

Ohiko zerbitzuei eutsi eta inbertsioak mugatu dituzte

Eguaztenean egindako udalbatzarrean, 2013ko aurrekontuak onartu zituzten

> JOSEBA DERTEANO

Eguaztenean egindako udalbatzarrean 2013ko aurrekontuak onartu zituzten gobernu taldearen (Bildu) aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen; oro har, proposamenaganaz ados dauden arren, alkatearen liberazioagaz ez daudelako konforme. Santi Uribe alkatea lanaldi herenean dago liberatuta.

Guztira, 1.494.365 euroko zenbaterako du sarrerak eta gastuak orekatuta dituen aurrekontuak. 2011. urtea 94.000 euroko defizitaz itxi zuten, eta 2012a 87.000 euroko superabitagaz ixtea lortu dute. Soberakin hori urtean zehar sortu daitezkeen ustekabeko gastuetarako gordeko dute.

Aurrekontuak koadratzerako orduan, Aldundiko Udalkutxari aurten itzuli beharreko kopuruari (77.000 euro) eta Udalkutxatik jasoko duten zenbatekoaren murrizketari (iaz baino 50.000 euro gutxiago) aurre egin behar izan diote.

Ohiko gasturik gehienak (kultura, gizarte laguntza...) mantendu egingo dituzte: "Ohiko gastu horiek ondo dimentsionatuta daudela uste dugu, eta murrizketarik ez egitea erabaki dugu" adierazi du Santi Uribe alkatea. Kanpora ateratako zerbitzuak (berdeguneen zainketa...), ostera, ahalik gehien doitu dituzte. Inbertsioak, batez ere, aurreko urteetan hartutako kon-

87.000€

2011 urtea 94.000 euroko defizitaz itxi zuten, eta 2012a 87.000 euroko superabitagaz ixtea lortu dute.

promisoak (erresidentzia ondoko etxea erostea...) ordaintzen jarraitzea mugatuko dituzte. Horrez gainera, iaz arazo bat baino gehiago eman zituen Oletatik Mainondorako ur hoditeria eta ur depositu bien barrualdea konponduko dituzte aurten, besteak beste.

> ELORRIO

Erabilera anitzeko aretoa sortuko dute Kirol Etxean

Ana Otadui alkateak esan du gero eta handiagoa dela Kirol Etxea erabiltzen duten klubuen kopurua

> MARKEL ONAINDIA

Kirol Etxea eraldatzea erabaki du udalak, eta datozen egunetan hasiko dituzte lanak. Udalak bidalitako oharrean, Ana Otadui alkateak esan du gero eta handiagoa dela Kirol Etxea erabiltzen duten elkarte eta klubuen kopurua: "Behar berri hauei aurre egiteko beharrez-

koak diren hobekuntzak egitea nahitaezkoa dela ikusi dugu". Besteak beste, gimnasioa lehenengo solairutik beheko eraingo dute, eta libre geratuko den leku horretan, erabilera anitzeko aretoa sortuko dute. Elkarteei batzarrak egiteko erabili ahal izango dute, adibidez.

Bestalde, Errugbi Klubak ere bulego propioa edukiko du hemendik aurrera. Eraldaketa egiteko erabakiak, taldeekin batzartu eta euren eskaerak aztertu ostean hartu dituela azaldu du udalak. Guztira, 15.899 euroko aurrekontua dauka proiektuak.

Kirol Etxea eraldatzea erabaki du udalak; datozen egunetan hasiko dituzte lanak

Ariketarako eta aisiarako gune berria ipini dute Gazeta auzoan

Udalak ariketak egiteko makinak eta txintxaunak ipini ditu Gazetan. Herriko hirugarren aisiarako gunea da Gazetako, Aldatsekuakoaren eta San Agustingoaren ostean. Gune bio-osasungarriak deitzen dira horiek, eta nagusiek ariketak egitea eta umeek jolastea ahalbidetzen dute. Gazetan, mugit-

kortasuna, koordinazioa eta indarra lantzeko bost makina instalatu dituzte, baita txirris-ta eta txintxaunak ere.

"Sozializatze guneak"

Ana Otadui alkateak azaldu du auzotarren partaidetzari begira egindakoak direla horrelako guneak: "Auzoetako herritarrek bai sozializatze gune aisiarako partekatze gune amankomunak eduki ditzaten". Gazetako gunerako 13.818 euroko aurrekontua eduki dute, eta Eusko Jaurlaritzak 10.000 euro gaz lagundu du.

> ATXONDO

Jubilatuen taberna itxi behar dute hiru-lau astez

Astelehenean itxiko dute; 13 urtez arduradun izan denak utzi egin du, ez zelako errentagarria

> JOSEBA DERTEANO

Astelehenetik aurrera, Ziarreta kaleko jubilatuen taberna itxi egin behar dute hiru-lau astez. Orain arte taberna 13 urtez eroan duen pertsonak utzi egin du, azken urteetan galerak izan dituelako eta ez zelako errentagarria.

Ondorioz, baldintza orria berriro aztertzen eta egokitzen ibili da udala egun hauetan,

Baldintza orria datorren astean publiko egitea gura dute; udaletxean eskatu ahal izango da

eta datorren astean bertan eskaintza publiko ateratzea da asmoa. Gura dutenek, udaletxean izango dituzte eskuragarri baldintza orriak. Hiru-lau astean proposamen guztiak jaso, tabernaren esleipena egin, eta berriro zabalik egotea espero dute.

Bidea konpontzen hasiko dira

Bestalde, astelehenean Axperako bidea konpontzen hasiko da udalak kontratatutako enpresa bat. Lanak egun batean amaitzea aurreikusita dago, baina baliteke pare bat egun behar izatea. Eraberritze lan horiek irauten duen bitartean Axperako errepideko auto trafikoa semaforo baten bidez erregulatuko dute.

> ZALDIBAR

Zalduak kudeatuko du kiroldegia mantentzea

> ITSASO ESTEBAN

Zaldua kirol elkarteak kudeatuko du urtebetez, kiroldegia eta futbol zelaiaren garbiketa eta mantentzea.

Urtebeteko proba egingo dute funtzionamendu horregaz, alkatetza dekretu batek jasotzen duenez. Elkartean lan hori bere gain har dezan, dirulaguntza bat eskainiko dio udalak.

Urteetan eztabaidagai izan da udalean kirolgune horien mantentzea zelan hobetu; izan ere, azpiegitura horiek daukaten erabiltzaile kopuruagaz, udalak eskaini zezakeen zerbitzua ez zen nahikoa. Gorputz heziketako ikasleek, eta futbol taldetako jokalariek erabiltzen dituzte kirolgunetako aldagelak.



Durangaldeko Behargintza
Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comercial de Desarrollo



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango



HOBETUZ
Fundazioa lekuak eta Formazio Profesional Guneak
Langilean Funtzionatzen duen Laguntza



Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua



EUSKO JAURLARITZA GOBERNU VASCO
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

DOAKO IKASTAROAK

Langileentzako eta langabetuentzako

PINTXOAK ETA LAPIKOKOAK (KAZOLATXOAK) PRESTATZEKO ERAK

Data: 2013ko martxoaren 4tik 25era arte
Ordu kopurua: 40
Ordutegia: 18:00etatik 21:00etara
astelehenetik ostegunera
Tokia: Durangaldeko Behargintza
Izena emateko epea: 2013ko otsailaren 22ra arte

Oharra: gehieneko langabetu kopurua %40.



Interesa baduzu deitu hurrengo telefonora: **94 623 25 22**
Durangaldeko Behargintza - Laubideta, 6 - Durango
www.mdurango.org

> DURANGALDEA

MZ enpresan erregulazio espediente baliogabetuta

Abadiñon eta Berrizen lantegi bana dituen Mendiguren y Zarraua enpresak aurkeztutako suspentsio espediente baliogabetu dute epaitegiek

> JONE GUENETXEA

Epaitegiek Mendiguren y Zarraua enpresak irailean aurkeztutako erregulazio espediente baliogabetu dute. 227 langileri eragingo liekeen lan erregulazio espedientearen aurrean, Bilboko

lan arloko 10. epaitegiak kaleratutako ebazpenak dio enpresak kontsulta epean "fede txar nabarmenagaz eta akordioetara heltzeko asmo barik jokatu duela". Epaiak azaltzen duenez, enpresak ez die langileei eman egoera

ekonomikoaren inguruan eskatutako informazioa.

Erregulazio espediente hau seigarrena litzateke Berrizko lantegirako, eta hango 110 behargini eragingo lieke. Abadiñoko lantegiari dagokionez, bosgarren espediente litzateke, eta 117 beharginentzako litzateke.



Abadiñoko Mendiguren y Zarraua enpresa.

Epaileak dio enpresak "fede txar nabarmenagaz eta akordioetara heltzeko asmo barik" jokatu duela

Luis Torres ELA sindikatu delegatuak "pozik" hartu du epaia. "Lan ikuskaritzak espediente ez zuen babesten eta epaitegiek ere kontrako epaia eman dute".

36 ekintzailek jardun dute Behargintzako ikastaroetan

2012ko ekintzaileentzako ikastaroetan enpresak sortzeko informazioa eman zieten, besteak beste

> MARCEL ONAINDIA

Enpresa txikiak finkatzea helburu, Behargintza zerbitzua gaz hiru ikastaro eman zituen iaz Amankomunazgoak. Horietan, 36 ekintzailek parte hartu zuten, arduradunek prentsa ohar bidez azaldu dutenez. Enpresak sortzeko informazioa eta diru-laguntzak lortzeko bideak eskaini zituzten ikastaroetan, besteak beste. Enpresa zabaltzerakoan kontuan hartu beharreko gastuen inguruan ere egin zuten berba; alokairua, argindarreko gastua edota gizarte segurantzako kotizazioak zelan ordaindu, esaterako.

Prentsa oharrean, Oskar Zarrabeitia Amankomunazgo presidentek esan du euren apustua dela eskualdean enpresak sortzen jarraitzea. "Beharrezkoa da ekimen ho-

nekin jarraitzea ekonomiari eusteko. Lehenasuna ematen diet gure inguruan ditugun ekintzaileei, eta laguntasun osoa emango diegu".

Enpresa zabaltzerakoan kontuan hartu beharreko gastuen inguruan ere egin zuten berba

Zarrabeitiak esan du euren apustua dela eskualdean enpresak sortzen jarraitzea

> MALLABIA**> J.G.**

Joan zen asteko euriteek hainbat lurjausi eragin zituzten herrian. Mila Mondragon alkatearen berbetan, horietako lurjausi bi kezagarrienak. Salamatu-Gomeziaga auzo bideko puntu bi dira kaltetuenak. Puntu batean bidea itxi egin dute, lur pilo erori delako bidera.

Beste puntuan, berriz, zati bat jausteko arriskuan dago, bideari eusten dion lurra eroan duelako urak, parean aurkitu dituen zuhaitzekin batera: "Momentuz azken puntu honetatik kotxeak kontu handiz pasatzeko moduan ipini dugu, eta lehenengo puntutik ez dago pasatzerik", dio Mondragonek. Udaleko teknikariak kalteak aztertzen dabiltza, bidea lehenbailehen zabaltzeko.

Salamatu-Gomeziaga auzo bidea konpontzen

Auzo bidea puntu batean zerratuta dago joan zen asteko euriteek eragindako kalteen ondorioz



Euriteek sortutako kalteak Mallabiko auzo bidean.

Urdinez jantziko da Mallabia mozorro egunez

Otsailaren 8an mozorrotzeko gaia "urdina" da; gaueko pilota partiduetan Mikel Goñi arituko da

Inauterietako egitarau zabala prestatu dute herrian. Zapatu arratsaldean, umeentzako jolasak egingo dituzte. Gainera, Txixiburduntzia eta txokolatada egingo dituzte Trabaku-Goiko tabernan.

Datorren eguaztenean, ostera, Oier Araolazak Mozorro-zeza ez da disfrazatzea berbaldia eskainiko du, Orraitio euskara ekarteak antolatuta. Eguenean, umeek txixiburduntzia egingo dute eskolan. Kultur Etxean, berriz, konposta egiteko formakuntza saioa emango dute.

Otsailaren 8ko mozorro egunerako, *urdina* izango da gaia. 19:30ean bertso poteoan irten go dira, Odei Barroso eta Gorka Maizegaz. Irune eta Nerea, Udane eta Juleneren kontra lehiatuko dira nesken partiduan. Ondoren, Goñi II eta Aldapek, Berasaluz IX eta Zabalaren kontra jokatuko dute. Zapatuan, Mallabia B-Bermeo futbito txapelketa jokatuko dute. Otsailaren 12an haur parkea, txokolatada eta erromeria antolatu dituzte. Mozorro lehiaketan parte hartzeko deia egin dute.

> MAÑARIA

Jubilatuen txokolatada egingo dute

> MARCEL ONAINDIA

Mañariko jubilatuek elkartzeko hitzordua edukiko dute otsailaren 12an. Jubilatuen elkarrekin txokolatada antolatu du egun horretarako, inauteriak direla kontuan hartuta. Herriko Tabernan izango da ospakizuna, arratsal-

deko 18:00etatik aurrera. Azaldu dutenez, tabernan bertan eman behar dute izena interesdunek. Ogitartekoa, txokolatea eta ardoa eskainiko dizkiete, eta ordainetan 6,5 euro ipini beharko ditu bakoitzak.

Bestalde, astelehenean Santa Ageda koplak abesten irten go dute hainbat herritarrek 09:00etan. Batutako dirua Korrikaren kilometro bat erosteko izango da, martxoan Mañaritik pasatuko da-eta.

Taldeak!

Preparto Posparto Pilates

Hipopresiboak

hiru
fisioterapia

Talde murriztuak - Balorazio posturala doan - Ordutegi malgua
Irakasleak fisioterapeuta espezializatutak izango dira

> DURANGALDEA ASTEON**Liburuen mailegua iPad bidez egin daiteke Durangon**

Durangoko liburutegian bost iPad ipini berri dituzte erabil-tzaileentzako eskuragarri, kontsultak zein liburuen maileguak egiteko. Liburutegiko txartela duen edonork erabil ditzake. 16 urtetik beherako gaztetxoek, aldiz, gurasoen baimena beharko dute.

Elorrion, Labakuatik Urarkarako zorua aldatzen dabilta

Urarka eta Labakua kaleen arteko pasabidea irisgarritasun neurrietara egokitzeko eta argiztapen hobegaz hornitzeko lanak egiten dabilta Elorrion. Lurzorua Urarka kalean dagoen zoladura berdinarekin egingo dute. Argiztapenagaz, gainera, gune ilunak ezabatu dituzte.

**Trafikoak herriguneko aire kalitatean duen eragina aztertuko dute neurketekin**

Autoen trafikoak herrigunetako aire kalitatean duen eragina jakiteko neurketak egingo ditu Durangaldeko Amankomunazgoak. Eskualdean trafiko emaririk handiena duten errepideetan neurgailuak ipiniko dituzte datozen egunetan. Ondoren, datu horiek 2009an egindako beste azterketa batekin alderatuko dituzte, azken urteetan izan den garapena ikusteko. Ikerketak egiteko, 26.257 euroko aurrekontua dute.

> IURRETA**Lana eskaintzeko gizarteratze zentroa sortzen lagundu du udalak**

Gizartetik baztertzeko arriskuan dauden pertsonak lan-munduan sartzea sustatzen dute enpresa horiek; aldi baterako kontratuak bideratzen dira

> AITZIBER BASAURI

Durangaldean “aintzidaria” den Gizarteratze Zentro bat sortzen lagundu du udalak Logicart gizarteratze enpresagaz batera. Helburua “apala” baina “argia” da: langabezian edo gizarteratze kanpo geratzeko arriskuan daudenei lana eskaintzea. Iñaki Totorikaguena alkateak argitu duenez, Lanbidetik eratorritako pertsonak dute hor lan egitea, beti ere, Amankomunazgoko gizarteratze gidaturiko gizarteratze prozesu baten barruan; aldi baterako kontratuak bideratzen dira.

Gizartetik baztertzeko arriskuan dauden pertsonak lan-munduan sartzea sustatzen dute gizarteratze enpresek. Berezi-ki emakumeak kontuan hartuko dituen beste baliabide sozial bat sortzeak duen “premia” nabar-

menu du Totorikaguena, “enplegu tasan dagoen genero aldeaz jabetuta, eta beste langabe-tuak ahaztu barik”. Iurretan emakumeen langabezia-tasa %20 dela esan du.

Erosketa Publiko Arduratsu bat egiteko konpromisoaren barruan, udalak informatikako suntsikorren hornitzaile egin du Logicart. Ekimena babestu dute Cafés Baquék eta Renault Gaursak ere, “gizarteratze korporatiboaren bitartez, Logicart hornitzaile bihurtuta eta gizarteratze zentroa finantzatuta” dio alkateak.

Lanbidetik eratorritako pertsonak dute hor lan egitea, gizarteratze prozesu baten barruan

Maspe kalean dago kokatuta Logicart gizarteratze enpresa berria.

> BERRIZ**Auzo-taxirako txartela daukate 188 berriztarrek**

Zerbitzua martxan dagoen hiru hileotan 358 bidaia egin dituzte auzorik auzo eta herrigunera

> AMAIA UGALDE

Urriaren erdialdean hasi ziren Javier Larrinaga eta Javier Isasi auzo-taxi zerbitzua eskaintzen, eta orduz geroztik 358 bidaia egin dituzte abenduaren amaierara arte. Auzoetako bizilagunek herrian zehar mugitzeko aukera hori baliatu dute, eta 188 herritarrek eskuratu

dute zerbitzua erabiltzeko txartela.

Urriko azken bi asteetan 45 bidaia egin zituzten taxiak. Azaroan, berriz, 127 egin zituzten, eta abenduan, 145. Euro biren truke, auzotik auzora edo herrigunera bidaiatzen dute taxian.

Astehenetik zapatura

Zengotitabengoa kaleko 2.zenbakian daukate taxiak geltokia. Astegunetan, 07:30etik 21:00etara egiten dute lan, eta zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara. Taxiak erabiltzeko, erabiltzaile txartela eskatu behar da udaletxean, eta taxien telefono zenbakia 620 022 800 da.

Erabiltzaileek euro biren truke, auzotik auzora edo herrigunera bidaiatzen dute taxian**Dirulaguntzarik barik, geldi dago Legañoako azterketa**

Iaz Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuen Legañoako azterketa arkeologikoarekin jarraitzeko dirulaguntzarik eman, eta momentu honetan, lanak geldi daude. Orland Isoird alkateak azaldu duenez, hasierako ikerketa bat eginda dago, eta “ofizialtasuna emateko gainbegiratzeko dabilta”.

Alkateak kontatu duenez, iaz Aldundiak udalaren laguntza atzera bota eta gero, arkeologoak bere aldetik eskatu zuen dirulaguntza, eta hari ere ez zioten eman, murrizketak argudiatuta. Laster diru-iturri gehiago izatea espero du Isoirdek.

2011ko martxoan eman zuten Legañoako aurkikuntzen berri. Berriz sorrerakoak izan litezkeen ermita eta hilobiak aurkitu dituzte bertan. Aztar-na zaharrenak XI.mendekoak izan daitezkeela azaldu zuten bere garaian.

A CENTRAL
FORESTAL

42 Urte Euskal Basoen Zerbitzura



Smurfit Kappa
Nervión

Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

Jasangarritasuna bermatzen hurrengo ziurtagirien bitartez:



LOURDES OKARANZA ETA RIKARDO GONZALEZ DE DURANA | Eroski-Fagor ekarpenak erosi zituzten |

“Dirua gura genuenean atera ahal izango genuela esan ziguten”

Aurrezteko asmotan, Eroskiren eta Fagorren aportazioak erosi zituzten hainbat herritarrek; orain, ezin dute dirua bueltan jaso

>AMAIA UGALDE

Durungaldean ehun kaltetu baino gehiago egongo direla uste dute; guztira, 40.000 izan daitezkeela diote. Bankuen eta kutxen bidez, hainbat herritarrek Eroski eta Fagorren ekarpenak erosi zituzten bere garaian. Aurrezteko bide bat zela esan zieten, baina orain, ezin dute diru hori eskuratu. Elkarte bat sortzen dabil-tza, eta Ricardo Gonzalez de Durana arabarra da bultzatzailea. Bere antzeko egoeran dauden pertsonak batzeko informazioa banatzen hasi zen. Harrezkero, 400 dei inguru jaso ditu, Durungaldekoenak hogeitau baina gehiago. Horieta-ko bat da Lourdes Okaranza elorriarra.

Zergatik ezin duzue dirua berreskuratu?

Ricardo Gonzalez de Durana: MCCk aportazioak diseinatu zituenean, bazkideen artean eta kutxen eta bankuen bidez –Euskadiko Kutxa, BBVA, Santander, BBK...– saldu zituen. Finantza entitateek aurrezteko bide baten moduan saldu zizkiguten guFagorrera joan denez, kooperatibak likidatzea erabakitzen ez duten artean ezingo dugu di-

rua eskuratu. Guk ez dugu nahi hori pasatzerik; dirua berreskuratzea baino ez dugu gura.

“

Segurua zela esan ziguten, epe finkorako kontu baten antzekoa zela baina dirua gura genuenean atera ahal izango genuela”

Zer esan zizueten aportazioak eskaintzerakoan?

R.G.: Segurua zela, ez zuela burtsan kotizatuko, eta Epe Finkorako kontu baten antzekoa zela, baina gura nuenean atera ahal izango nukeela dirua. Hori esan digute, eta fidatu egin gara. Bestela, pentsaezina da inork bere aurrezkiak Eroskiri uztea interes baten truke. Jendeak dirua irabazi gura balu, burtsan inbertituko luke.

Lourdes Okaranza: Gurean ere, senarrak galdetu zuen ea dirua atera gura bagenu zenbat denborara atera ahal izango genuen, eta 24-48 ordu arinago eskatuta nahikoa izango zela esan zigun Ipar Kutzako zuzendariak. Kontuaren egoeraren laburpena heldu zitzaigunean, balioa bajatu egin zela ikusi genuen. Zuzendariak esan zigun aportazioen balioa bajatu egin zela. Krisiagatik zela. Orain, inbertitutakoaren %30 balio dute.

Zer bide hartu duzue?

R.G.: Boikot aktiboa hasi dugu. Irudia zikindu eta bezeroen bidez boikota egitea gura dugu. Abokatuekin justiziaren bidea hartuz gero, diru asko gastatuko genuke, eta urteak egon gaitetzke epaiketetan. Kaltetuak 16.000 eta 40.000 artean dira. Gure dirua bueltatzea ez bueltatzea baino merkeago ateratzen zaionean bueltatuko digu MCCk dirua. Balantza orekatu behar dugu. Horretarako, ahalik eta kaltetu gehien batu behar gara. Preferenteengaietan, Zarauzko andra bat, esaterako, nik soinean daukadan kamisetaren antzeko-jantzita bankura sartu eta irten ibili zen; diru guztia bueltatu diote, borrokalaria izateagatik.



“

Askok, interesak ondo etortzen zitzaizkigula eta jubilazioan diru hori aprobetxatzeko sartu genuen dirua”

“

Boikot aktiboa hasi dugu; irudia zikindu eta bezeroen bidez boikota egitea gura dugu. Horretarako ahalik eta kaltetu gehien batu behar gara”

L.O.: Argi utzi gurako nuke gu ez goazela enpresetako langileen kontra. Badakigu langile askok ere sartu zutela dirua aportazioetan. Gure dirua berreskuratzea baino ez dugu gura. Gehienak helduak gara; interesak ondo etortzen zitzaizkigula eta jubilazioan diru hori aprobetxatzeko sartu genuen askok dirua horra. Gu ez gara inbertsore handiak, aurreztaileak gara. Eroskiren sorreran hainbat herritarrek parte hartu genuen, helburua herriko jendeari lana ematea zelako. Aportazioekin euren laguntzeko bide bat ikusten genuen, eta laguntzeko dudarik ez genuen eduki. Konfiantza osoz, Ipar Kutzako zuzendariak aurrez esan ziguna sinistu genuen, kontratuko letra txikia begiratu barik.

Eguazteno, Bilboko Plaza Biribilean kontzentratzen dira kaltetuak, 12:00etatik 13:00era. Informazio gehiagorako: **653745280**



Durungaldean hogeitau kaltetu inguru hurreratu dira elkartera. Ehun baino gehiago direla uste dute.



Bikoiztasunen marketinga

Euskal Herria, herri txikia da metro karratutan neurritzen badugu. Baina historiari agerian utzi du hain lurralde txikian hamaika handiuste kabitzen direla. Egoskorregiak izan gara, eta albokoarekin elkarlanean gutxi eta lehian franko aritu gara.

Nola bestela ulertu daiteke hain herri txikian, hiriburu bakoitzean aireportu bat eraikitzea. Kontua ez da hor bukatzen, aireportua eraikitzearekin ez baitugu nahikoa izan; alboko aireportuak zuen zerbitzu kopuru eta maila bera izatea gura izan dugu. Gauza bera gertatzen da itsasoko portuekin eta lur barneko portuekin. Gauza bera, herri bakoitzak eraikitzen duen industrialdearekin. Askotan alboko herriak eraiki duen industrialdetik metro gutxira eraikitzen da, metro karra tuak sobera geratzen zaizkio eta logikoa den moduan, alboko herriak egin duen industrialdeari konpetentzia egiten dio. Hori bera gertatzen da Durangokoarekin.

Hori da EAJk sustatu duen politika, bai eskualdeko herrietan, baita Eusko Jaurlaritzan ere. Bikoiztasunen zerranda luzea da, eta horrek eragin duen xahutze ekonomikoa zein ingurumenari egin dion kaltea ikaragarria.

Horregatik, buruzagi jeltzaleek bikoiztasunen marketinga egiten dutenean, herri hau ezkerreko ikuspuntu ekologista batetik eraiki gura dugunok sumindu egiten gara. Urkulluk eta Bilboak topatu dute bikoiztasunen erruduna: kultura larregi egotea. Eta lortu dute bikoiztasunen xahutzearekin bukatzeko giltza: bi orkestra sinfoniko bat egitea eta bakarra bihurtzea. Eskerrak eman behar dizkiegu!

Guk eskola euskalduna!

Sarritan esan dugun legez, Euskarak beren herrian bizi duen egoera ez da euskaldunok nahi eta behar duguna. Euskal herritarrok ez diren interesak babesten dituzten menpeko gobernuen eskutik, euskara eta euskaldunok bigarren mailako izaera kondentatzen gaituzten menpeko hizkuntza politikak jasan eta pairatu behar ditugu. Euskarak lehentasunezko izaera behar duen honetan, aipatu menpeko politikek erdaren nagusitasuna mantentzea, errotzea, trinkotzea eta atzerazekin bilakatzea beste helbururik ez dute.

Aipatutakoa garbi erakusten duen alorra da hezkuntzarena. Areago, azken asteotan Espainiako Hezkuntza Ministeriotik entzundakoen ondotik, inposatu nahi diguten Wert-en legea delakoarekin. Berriz ere, eskolatik hasita nahi dute ekin, euskara eta herri euskaldunaren aurkariak. Baina guk argi dugu zein den euskaltzaleok jorratu beharreko bidea: Euskal Herri euskalduna eraikitzeke urratsak egin eta erasoei aurre egitea.

Halaz ere, EHEtik uste dugu Madrildik datorren eraso berri honek ezin duela balio orain artekoaren defentsa egiteko. Egoe-

ra lazarri honen aurrean herritarrok martxan jarri duten asimilazio prozesuari planto egin behar diogu eta eskola euskalduna aldarrikatu. Tresna bikaina eskaintzen digu Kontseiluak horretarako: 'Ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko proposamena'.

Bada garaia erabaki ausartak hartzeko, legedi zahar eta ustelak gainditzeko, inposaketa kudeatzen jarraitu ala geure bidea egin erabakitzeke. Elkarlanerako garaia dugu. Eskola euskalduna nahi dugu. Euskararen ezagutza unibertsala bermatu eta belaunaldi berriak euskaldunoko dituen; Euskal Curriculum oinarri hartuta euskal nortasunaren eta kulturaren transmisioa ziurtatuko dituen eskola euskalduna, hain zuzen ere.

Hau guztia dela eta, hezkuntzaren alorrean gertatzen ari diren erasoei aurre egiteko deia luzatzen diegu herritarrei EHEtik, horretarako Durangon otsailaren 7an, osteguna, 19:00etan, Ezkurdi plazan elkarretaratzea egingo dugu Inposaketarik ez! Guk eskola euskalduna! lelopean.

Durangoko EHE

Gerediaga zabalik!



Eskerririk asko, *Abadiño auzorik auzo* ibilaldian, gure herriko bazterrak ezagutzeko, gurekin izan zineten guztioi. Ekitaldiaren hasieran, "Gerediaga ingurua zabalik" nahi dugula aldarrikatu genuen bertaratu ginenok.

San Salbadoreko basilizaren ingurua zabalik egon da beti. Auzokideon elkargune izan da. Bizkaiko Foru Aldundiak Batzargunea berri zuenetik, berriz, gotorleku bihurtu da. Hainbat bider eskatu diogu Aldundiari, baita Abadiño Udalari ere, Gerediagako ingu-

rua zabalik egoteko neurriak hartzeko. Hala ere, urteak joan eta urteak etorri zarratuta jarraitzen du. Egoera honen aurrean, aldarrikapenerako garaia dela deritzogu.

Hamabi Harri auzo elkarteak inguru hau zabalik egon dadin lanean jarraituko du. Denon diruagaz ordaindutako obren ondoren, ez dugu zentzuzko arazoirik aurkitzen gune hau itxita mantentzeko.

Hamabi Harri auzo elkarte (Abadiño)
Laguntzaileak:


Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du


anboto
 komunikabideak

 Bixente Kapanaga, 9
 48215-Iurreta
 (Bizkaia)
 Tel.: 94 681 65 58
 Erredakzioa:
 94 623 25 23
 Publizitatea:
 94 621 79 02
 publi@anboto.org

 2013ko otsailaren 1a
 11. urtea - 487 zk.

Zuzendaria:

 Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
 Joseba Derteano
Administrazio burua:
 Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna, Aitor Lopez.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Ane Elordi.
Maketazioa:
 Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
 Argazkilaria: Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes.

> ANTZERKIA

Gorputz eta arima oholtzaratuta sorturiko lana: 'Un loco de desatar'

Zoramenari eta zentzunaren mugei buruzko obra da Trastada Teatrok Berrizko kultur etxera dakarrena

> ITSASO ESTEBAN

Urteetan antzerki tailerra gidatu duten herrian, Berrizen, eskainiko dute Rosa Martinez Alcocebrek eta Sardo Irisarrik elkarla-

nean sortu duten *Un loco de desatar*: Kultur Etxean eskainiko dute emanaldia, bihar, 20:00etan.

Juan Sanchez Vallejo lagun psikiatraren testu bat da lana-

ren oinarria, eta Claudio Hochman-ek moldatu du oholtzarako. Irisarrik azaldu digu hasierako ideia: "Nire belaunaldiko jende bati buruz berba egiteko gogo-

neukan: hilik egon ez arren, bizi lurperatuta daudenez".

Zoramenari, zentzunaren mugei buruzko bakarriketa da *Un loco de desatar*: oso zintzoa.

Egileen berbetan, zintzoa delako da krudela eta gogorra ere.

Horregatik, "lan hau Rosak bakarrik zuzendu zezakeela kontzientziaz nengoen", dio Irisarrik: "Daukagun elkarren ezagutzagatik eta konfiantzagatik".

Antzerkian eta elkarlanean hamarkadak daramatzate Martinezek eta Irisarrik, eta elkarrekin hartu dute arriskua Trastada Teatro taldearen lan honetan: "Oso lan biluzia egin dugu, entrega totalakoa".

«Terapia oso agresibo bat lakoa da obra: hustuta amaitzen dut»

Zelan elkartu zarete biok 'Un loco de desatar' antzezlari martxan ipintzeko?

R.M.: Asko tematu zen Sardo berekin kolaboratu nezan, eta oso eskertuta nago horregatik. Hasieran, kosta egin zitzaidan baietz esatea, azkenaldian gehiago nabilelako antzerki

tailerretan antzerki profesionalean baino... Baina konbentzitu egin ninduen!

Ikuslearentzako lan gogorra dela irakurri dugu...

S.I.: Oso lan emotiboa da, bai: "Gogorra baina ederra" dela esan izan digute ikusle askok.

Gogorra da ikusteko, eta gogorra da antzezteko, bai.

R.M.: Ikusleei harrigarri egiten zaie, gainera, zelako bizkortasunagaz egiten dituen pertsonaia aldaketak: malabarismo teatral ikaragarria egiten du. Antzerki purua da Sardo egiten duena.

S.I.: Bai, antzerkiaren esentzia da, oso lan biluzia: eszenografia eta muntaia hain soila izanda, antzezpena da zentroa. Hori da jendeak baloratzen duena, soiltasun horretatik, barre asko egitetik negar egitera zelan eroaten dugun.

R.M.: Antzerkia antzerkiaren barruan da lana: pertsonaia-ren eta aktorearen jokoak.

S.I.: Nire buruari galdetu izan diot: "Egunero antzeztu nezake hau?". Eta uste dut ezetz: oso oso ukituta amaitzen ditut emanaldiak: terapia oso agresibo bat lakoa da. Lur jota amaitzen dut, hustuta bezala. Lehenengo aldia da antzezlari bategaz horrelako zerbait gertatzen zaidana.

Zuzendari bezala, zer ibili zara bilatzen, Rosa?

R.M.: Kontatzen dabilena sinistu dezala aktoreak. Zaila da hori, pertsonaia lazarria delako Cómico, eta aktorearentzako mingarria izan daitekeelako horrelako pertsonaia baten azalean sartzea.

Noiz hasi zineten antzezlari prestakuntza?

S.I.: 2011ko ekainean ekin genion lanari, eta azaroan estreinatu genuen antzezlari.

Eduki duzue lana han-hemen eskaintzeko aukerarik?

S.I.: Hainbat lekutan eskaini dugu, bai: Albaceten eta Tolon egon naiz oraintsu, eta Euskal Herrian hainbat hitzordu daukagu lotuta: Elorrion eta Abadiñon ere egongo gara.

Zelan hartu du ikusi duen publikoak lana?

S.I.: Oso harrera beroa egiten diote ikusleek. Rosak oso ikuslari orekatua muntatu du, eta ikusleak jasotzen duena aktoreak sentitzen duena da: oso dibertigarria da obra, nahiz oso krudela ere baden.



“

Aktorearentzako mingarria izan daiteke horrelako pertsonaia baten azalean sartzea”

> MUSIKA

Aro bat amaitutzat eman aurretiko Gau Elektronikoa

Otsailaren 8an izango da Gau Elektronikoaren 4. urteurrena, Plateruenean



> I.E.

Otsailaren 8rako antolatuta dute Iker Undersound eta Ruben Costas Durangaldeko dj-ek Gau Elektronikoaren laugarren ur-

teurrena. Lau urtez Platerueneko hitzordu hau antolatzen ibili eta gero, "gure musika sortzeko denbora gehiago hartu gura dugu, eta bestelako proiektu ar-

tistikoak burutu: ikasi, atzerri-ira irten...". Denbora hartu gura dute, eta oraingoz, Gau Elektronikoaren azkenengo emanaldia izango dute datorren barikukoa:

"Jaien produktore lana apur bat alboratu eta bestelako gauzetan pentsatzeko beharra daukagu, eta udara arte gutxienez, denbora hartuko dugu", diote.

Otsailaren 8ko saiorako, Bilboko Sonora aretoan jarduten duen Voz eta Txitxarroko Ibai- lo dj-ak gonbidatu dituzte: "Oso artista onak dira, bertakoak, eta gainera, lagunak", diote.

Sonora aretoko Voz eta Txitxarroko Ibai- lo gonbidatu dituzte datorren barikuko jaira

Durangaldeko dj biek ere ipi- niko dute, datorren barikuan, Platerueneko Gau Elektronikoan musika: azken urtean lan- tzen diharduten "musika ez hain bizkorra, lasaiagoa", ipi- niko dutela aurreratu dute Iker Undersoundek eta Ruben Costas dj gazteek.

Batez beste, 600 lagunera ar- tean batu dituzte Gau Elektroni- koetan. Urtean zortzi emanaldi egin dituzte, eta elektronikako artista ezagunak ekarri dituzte Plateruenera.

GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA

Kazetaria



Erradiografiak online

Internetera konektatzearen kristoren dirutza kobratzen di- gun telefono konpainia ezagun batek argitaratutako datuen arabera, honako hauek dira informazioaren jendeartea- ren zenbakiak: EAEko etheen %67,6tan dago Interneterako konexioa, 16 eta 74 urte bitarte- ko herritarren %71 sartzen da egunero Internetera, eta 10etik 4 sare sozialetan dabilta.

Gaur egun, gainera, ia ezi- nezkoa da konexioari izkin egitea, aldean daramatzagun mugikor adimenduek eskura jarri baitigute amua. Hankak etxean ahaztuta kalera irtetea bezain ezinezkoa da sakelakoa sukaldeko mahaian lagatzea, galdetu bestela nomofoboei! Eta zer esanik ez, dei galdu, whatsapp edo *atsegin dut* bila telefonoa egunean 34 aldiz bai- no gehiago begiratzen duten horietaz.

Apopilo sartu ziren adsl-a, sare sozialak, online eroske- tak edota enparauak gure etxe- tara; eta egun, bizilagun ditugu, ia maitale, ez baitakigu zer egingo genukeen haiek gabe. Errealitateari, errealitate bir- tuala gehitu diogu, errealita- tea bera areagotuz. Baina el- karbizitzaren jolasa ahaztu zaigu beste behin.

Kontua ez da komunikatze- ko era aldatu izana ona edo txarra den, edo dena klik bate- kin eskuragarri izatearen ego- kitasuna neur daitekeen, edo sare sozialetako kontaktuak gu- re kaleko lagunak baino gehia- go asetzen gaituzten... Dozena- ka artikulu idazteko gai izango ginatke adsl bakarrarekin.

Baina sikieran, darabiltza- zun tresnen kontzientzia har- tu eta gogoratu: sarean jartzen duzun oro publikoa da (publi- ko izateko arriskua dauka), noizbait zure aurka erabilia izan daiteke.

> PINTURA

Ramon Aranzabalen lanak ikusgai Elorrion

Katxarro jatetxean daude Ramon Aranzabal arrasatearraren bederatzia koadro, erakusketan

> I.E.

Elorrioko Katxarro jatetxean ipini ditu Ramon Aranzabal pintore arrasatearrak bere koadroak, erakusgai.

Otsailaren 24ra arte egongo dira bertan.

Pintura abstraktua jorra- tzen du Ramon Aranzabal margolariak, eta estilo horre- tako bederatzia lan bildu ditu Elorrioko jatetxean. Ia hamar- kada bi daramatza Aranzaba- lek margotzen, eta dozena bat erakusketa egin ditu urteotan.



> ARTEA

Mohamed Mouluden erakusketaren irekiera

Otsailaren 4an, 19:00etan, egingo dute Moulud pintorearen erakusketaren inaugurazioa

> I.E.

Elorrio Sahararen alde elkar- teak (Lajwad elkar-teak) eta Elorrioko udalak babestu dute Mohamed Mouluden margola- nen erakusketa.

Otsailaren 4an, Elorrioko Iturri kultur etxean inaugu- ratuko dute pintura erakuske- ta. Mohamed Moulud Yelsem artista saharuiaren lanaren erakusketa da, egun horretatik otsailaren 15era arte, Elorri- ko Iturri kultur etxean ikusgai izango dena.

Astelehenean, 19:00etan, egingo dute inaugurazio eki- taldia. Bertan egongo da Mou- lud egilea, eta erakusketa za- baldu eta gero, luntxa egingo dute Lagun-toki elkartean.

Elorrio Sahararen alde elkar-teak eta udalak babestu dute Mohamed Mouluden erakusketa

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 1 22:00etan
RAUL CIMAS - JULIAN LOPEZ
BAKARRIZKETA. 14-16 euro.

OTSAILAK 2
DURANGOKO III.SURF JAIALDIA
+ STEEPERS taldearen kontzertua.
Bazkaria: 22 euro (7 euro ekarpena)

OTSAILAK 3 17:00etan
LAGUNTASUNAREN SEKRETUAK
IRRIEN LAGUNAK. 5 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

AQUI VA A PASAR ALGO

Zanguango

Otsailak 2 • 20:00

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

> DANTZA**> I.E.**

Kale dantzen erakusleihoa eta lehiaketa da Akadantz, eta bosgarren urtez antolatu dute, aurtentzen, Elorrioko Arriolan. Bilboko BreakOnStage jaialdian dantzatzea izango du biharko irabazleak saria.

Antolatzaileek azaldu duteenez, 26 taldek eman dute izena aurtengo lehiaketarako (iaz baino 10 gehiagok). Euskal Herrikoak dira Elorrioko lehiaketan parte hartuko duten dantzari horietariko gehienak, Bilbo, Gasteiz eta Iruñekoak asko. Baina, Madrilgo eta Zamorako dantzariak ere etorriko dira.

Antolatzaileek azaldu dutenez, 26 taldek eman dute izena aurtengo lehiaketarako

Aurreko edizioetan baino gazte eta emakume gehiagok parte hartuko dute biharko lehiaketan, antolatzaileek aurreratu duteenez. Bi eta zortzi kideko taldetan dantzatuko dute hainbat adineko parte-hartzaileak.

Hiru modalitatetan lehiatuko dira dantzariak: street dance, jazz funk eta breakdance modalitateetan. Gehienez, hiru minutuko koreografia eskaini ahal izango du biharko lehiaketan, dantzari talde bakoitzak.

Inoizko dantzari gehien ariko da bihar, Arriolako kale dantzen lehiaketan

18:00etan abiatuko dute, bihar, kale dantzen Elorrioko AkaDantz. Sarrera guztiak saldu dituzte aurrez

**> ANTZERKIA**

'Aquí va a pasar algo' antzezlan komiko-poetikoa aukeran, bihar

Durangoko San Agustinen eskainiko dute, bihar, antzezlan komiko-poetikoa

**> I.E.**

Trapu Zaharra kale antzerki konpainiagaz Durangaldeko antzerkizaleak hainbat aldiz barez leherrarazi dituen aktorea da Txubio Fernandez de Jauregi gasteiztarra, *Aquí va a pasar algo* laneko antzezleetakoa bat.

Miguel Garces aktorearekin dihardu Fernandez de Jauregik bihar Durangoko San Agustin kulturgunean eskainiko duten antzezlan honetan.

Aktore horiek biek eta Miguel Muñoz zuzendariak sortu dute *Aquí va a pasar algo*.

Memoria galdu duten lagun bi dira Zanguango taldearen antzezlan honen protagonistak: euren historia, izakera eta bizitzako ziurtasun guztiak galdu dituzten gizon bi. Derrigortuta daude birsortzera.

"Oroimena txakur lelo baten antzekoa da", dio antzezlanaren

Aktore biek eta Miguel Muñoz zuzendariak sortu dute 'Aquí va a pasar algo' antzezlan



aurkezpen orriak: "Makila bat bota, eta bueltan edozer gauza ekartzen dizu".

Ikuskizun komiko-poetikoa da *Aquí va a pasar algo*. Elkarrizketa surrealisten segida. Ba-

Ikuskizun komiko-poetikoa da, elkarrizketa surrealisten segida, barrea eragiten duena

rrea eragiten du, baina erakusten dituen egoeretan ikusleak bere burua islatuta ikustea ere lortzen du.





GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialden, 45 Garaia A - Berriz.
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com



AROTZERIA

EGUIA s.l.
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaeguia.com



ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 601 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.sivterra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15



ELEKTRIZITATEA ARGITAZPENA

ARGITATZE TEKNIKAK
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



LORAZAINTZA

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutx, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085



Profesional onenak zure zerbitzura!

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

JAIAK!

San Blas

2013ko OTSAILA | ABADIÑO



Abadiñoko Udalak jai
zoriontsuak opa deutsuez

www.abadiño.org



ABADIÑOKO
UDALA

JAIEN EGITARAUA

Otsailaren 1a, barikua

18:30 Hitzaldia: 'Emakumeak nezakal ereduai begira', Txanporta kultur etxean. Esti Redondo.

19:00 San Blas 2013 Pilota Txapelketako finalurrekoak eskuz, Tornosolo trinketean.

19:30 'Abadiñoko emakume baserritarrak' argazki erakusketaren inaugurazioa eta bisita gidatua, Txanporta kultur etxean.

20:00 Ardo dastaketa, Txanportan.

21:00 Bertso afaria: Unai Iturriaga eta Igor Elortza, Gaztañodi elkartean. Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea. Gogaikarri bertso-eskolako kideek ere parte hartuko dute.

23:00 Rock jaialdia txosnetan: Never Surrender eta The Cherry Boppers.

Otsailaren 2a, zapatua

17:00 Puski eta Txurruki pailazoak, Txanporta kultur etxean.

18:00 Txitxiburduntzia, txosnagunean. Ustekabe txarangak alaituta.

Otsailaren 3a, domeka San Blas Eguna

Goizetik Azoka: Ganadua, baserri-tresneria, burdineria, ortuariak, frutak, gazta, txakolina, ogia, ezti, artisautzako produktuak eta landareak. XXI. Abelburu Erakusketa.

09:00 Txanbolin taldeko txistularien kalejira.

11:00 Meza nagusia, San Trokaz elizan.

11:00 Haurrentzako partidu eta jolasak, Tornosolo trinketean. Ondoren, Txiri-Txiri trikitilari taldearen kalejira.

12:00 Bertsolariak Ferialeku plazan: Gogaikarri bertso eskolakoak, Xabier Amuriza, Garikoitz Sarriugarte eta Eñaut Uruburu.

12:30 Herri kirolak, probalekuan.

13:30 San Blas 2013 Pilota Txapelketako finalak eskuz, Tornosolo trinketean.

18:00 Erromeria Ferialeku plazan: Lotxo taldea.

18:00 Idi-probak.

Otsailaren 4a, San Blas Txiki

19:30 Abadiñoko Done Zezili abesbatzak Santa Agedaren koplak abestuko ditu kalez kale.

21:00 Idi-probak.

Otsailaren 5 eta 8an

21:00 Idi-probak.

Otsailaren 9a, zapatua

14:30 Landa eremuko emakumeen bazkari-topagunea, Soloa jatetxean. 94 466 94 20

21:00 Idi-probak.

Otsailaren 10a, domeka

18:00 Idi-probak.

Otsailaren 11, astelehena

17:00/22:00 Idi-probak. Sari banaketa

Otsailaren 16a, zapatua

10:00 XXV. Burduntziko bildots txapelketa.

14:00 Bildots bazkaria, probalekuan.

MOTOS TABIRA
KONTZESIONARIO OFIZIALA
Salmenta Konponketa Boutiquea



AJP, PIAGGIO, KAWASAKI, HONDA

Tel./Faxa: 94 681 40 68
www.motostabira.com
Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO

bestebat Sukalde Altzariak



Perulanda 3 behea Abadiño
630 341 384

f Bestebat Cocinas

BANAKETAK MIOTA S.L.



Miota, 6 48230 ELORRIO Tel.: 94 623 18 92

SERRATU S.L.

GALDARAGINTZA ETA ITXITURAK

Astola, 48 48220 ABADIÑO Bizkaia
Tel.: 94 620 18 37
Fax: 94 681 86 35



Enpresetan mantenimentua

Waltaryk eta Mikel Goñik parte hartuko dute trinkete txapelketan

Kubako aurrelariak Inhar Ugarte izango du bizkarzain; Goñik atzelari jokatuko du Rober Uriartegaz

> JOSEBA DERTEANO

San Blas Pilota Txapelketaren finalerdiak jokatuko dituzte gaur, 18:45ean, Abadiñoko Tornosolo trinketean. Durangaldeko pilotariak kanpokoe-kin uztartuta, gaitza da Abadiñokoa baino kalitate handiagoko partiduak antolatzea. Lehenengo finalerdian izenak

eta izanak batuko ditu. Alde batetik, gorriz, azken urteetan trinketeko erreferentea izan den Waltary Agusti kubatarra eta Inhar Ugarte kantxaratu-ko dira. Bestetik, urdinez, modu batera edo bestera pilotatik bizimodua ateratzen jarraitzen duen Mikel Goñik Rober Uriartegaz jokatuko du. Goñi

ariko da atzelari. Oronoztar-rrak partiduari eusteko ardu-za izango du, Uriarte aurrean bere abildadea aprobetxatzen saiatzen den bitartean.

Finalerdi horren aurretik jokatuko den lehenengoak errebantxa kutsua du. Mikel Gonzalez berriztarra eta Ander Antxia abadiñarra Ipar Eus-

tuzten. Beraz, Larretxeak eta Lazkanok badirela nor erakutsi gurako dute Durangaldeko bikotearen kontra. Gonzalezek eta Antxiak bikote sendoa eta orekatua osatzen dute eta finalera sailkatzeko aukera handiak dituzte.

Gaur irabazten duten bikote biek domekan San Blas egunean, 13:30ean, jokatuko dute final handia.

Idi probak

Urtero legez, idi proben egitarau zabala antolatu dute Abadiñoko probalekuan. Guztira, zazpi saio egongo dira. Domekan, 18:00etan, Goiz argi (Oiartzun), Laski (Billela-Birle), Biorenabarri (Laukiz) eta Ipeñarrietaren (Urretxu) idi pareak lehiatuko dira; astelehenean eta martitzean, 21:00etan, Aia, Mungia, Bakio, Laukiz eta Errenteriako zortzi idi pareren txanda izango da.

Idi proben hurrengo saioa barikuan izango da, 21:00etan. Saio horretan Bizkaiko hiru idi pare (Lemoiz, Bermeo eta Mungia) eta Gipuzkoako bat (Errenteria) ibiliko dira lanean.

Hurrengo zapatu, domeka eta asteleheneko saioekin amaituko da aurtengo idi probetako eskaintza.

Waltary Agusti kubatarra azken urteetan trinketeak eman duen izarrik handienetakoa da

Lehen finalerdian Ipar Euskal Herriko bikotea Durangaldekoaren kontra neurtuko da

kal Herriko Olivier Larretxea eta Vincent Lazkano bikotearen aurka ibiliko dira. Ipar Euskal Herriko hainbat pilotarik Tornosolo Kopan ere parte hartu zuten iazko azaroan —buruz buru— eta denak etorri eta berehala kanporatu zi-

Elortzagaz eta Iturriagaz bertso afaria gaur, jaiak umoretsu hasteko

> A.U.

Gaztañodi elkartean, bertsolaritzagaz gozatzeko aukera edukiko dute gaur, 21:00etan hasita, bertso afarian elkartuko dira-eta. Unai Iturriaga eta Igor Elortza ibiliko dira bertsoan, Josu Goikoetxeak emandako gaiei erantzuten, eta Gogaikarri bertso eskolako kideek ere parte hartuko dute euren aleak botata.

Elkartetik kanpo, txosnetan, bestelako doinuak izango dira nagusi gaur. 23:00etan Never Surrender Arrasateko punk rock taldeak eskainiko du lehenengo kontzertua, eta gero Bilbotik etorritako Cherry Boppers taldeak jazz funk doinuak eskainiko ditu.

Txitxiburduntzia

Zapatukoa, egun handiaren bezpera, lasaia izango da. Arratsaldean txitxiburduntzia egingo dute. Ustekabe txarangak alaituko du giroa. Talde hori Eibar-ko gazteez osatutako txaranga da, eta ohiko doinuez gain, euskal rock radikalak, ska, eta beste hainbat doinu egokitu ditu txaranga.

Domekan ere bertsoan

San Blas egunean ere bertso doinuak egongo dira azokan. Urteroko saioa eskainiko dute, 13:00etan, Gogaikarriko lagunak, Xabier Amurizak, Gari-koitz Sarriugartek eta Eñaut Uruburuk.







INMOBILIARIA SAN FAUSTO, S.A.
parte har ezazu zozketan

PROMOZIO BERRIA TRAÑA-ERROTAN (Matiena)
2 eta 3 logelako udal etxebizitza tasatuak
174.600 eurotik aurrera

Tel.: 630 993 167 - 94 457 17 00 Informazio bulegoa obran bertan www.sanfausto.es



Apuntatzeko azken eguna:
Otsailak 20



JUAN BERISTAIN

NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa









Berriozabalbeitia, 14 - Elorrio - T/F: 94 623 18 03 - juanberistain@telefonica.net • www.juanberistain.com



Ekoizleentzako saririk ez da egongo aurten, San Blasetan

“Egoera ekonomikoak behartuta”, aurten lehenengoz, ez dute ekoizleentzako saririk banatuko San Blas azokan. BBKren babesagaz antolatu du azoka udalak

ITSASO ESTEBAN

Erakusmahairik ederrena edo kalitate handieneko produktuak dauzkan saltzaileentzako saririk ez da egongo aurten, lehenengoz, San Blas azokan. Parte hartuko duten erakusle eta saltzaileen kopuruan, ostera, ez da murrizketarik egongo. Bisitari ugari espero dituzte, gainera, domekan baita aurten, San Blas eguna.

Jose Luis Navarro alkatea eta BBKko Pilar Sanchez eta Oihana Zabala ordezkariak batu dira San Blas azokaren aurkezpenean. Erakunde horiek biek “azoka hau mantentzeko egiten duten lana” azpimarratu dute agerraldi horretan.

“Zoritzarrez aurten parte-hartzaileentzako saririk egongo ez den arren, azokak parte-hartze altua mantenduko du, eta horrek erakusten du lehenengo sektorerako zein herritarrentzat daukan garran-

tzia”, esan du Jose Luis Navarro alkateak.

Nekazaritza azokako erakusleen kopurua zein erakusmahaien kokapena aurreko urteetako antzekoak izango direla aurreratu dute antola-

Nekazaritza azokako erakusleen kopurua zein kokapena aurreko urteetakoak izango dira

Arbaso elkartearen laguntzagaz antolatuko dute, aurten ere, artisautza azoka

tzaileek, eta azokan eskuragai izango diren produktuen aniztasuna azpimarratu dute: ogia, barazkiak, txakolina, ezta,

gazta... Askotariko salgaiak eskainiko dituzte 72 ekoizlek.

Arbaso elkartearen laguntzagaz antolatuko dute, aurten ere, artisautza azoka: Txanpota kultur etxearen ondoan atonduko dute 30 artisaurentzako gunea.

Bestetik, Tornosolo kalean ipiniko dituzte 10 landare haztegi landare eta haziak salmentan, eta Gaztañodi ingurua hartuko dute nekazaritzako makinaren postuek.

Azken urteetan bezala, Lorra kooperatibagaz elkarlanean antolatu du Abadiño Udalak San Blas azokako ganadu salerosketa: 78 abere izango dira, otsailaren 3an, Abadiño salgai.

Ohi bezala, gainera, salerosketarako karpaz gainera, ganadu erakusketarako gunea ere atonduko dute San Blas azokan: Abadiño sei abeltzainen ganadua izango da erakusketa horretan, besteak beste.

Idi probetako partaideei dietak kendu dizkiete “lehiakortasuna bultzatzeko”

Hogeita hamar bikotek jardungo dute San Blas idi proba sariketan, bizkaitarrak gehienak. Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, “lehiakortasuna bultzatu” asmoz, idi proben parte-hartzaileek dieta bezala jasotzen zuten dirua kenduko du udalak.

Partaide guztiei dietak ordaindu beharra udalarentzako gehiegizko gastua zela dio alkateak.

“Aurrerantzean, inor ez da etorriko dieta jasotzarren ba-

karrik”, dio Jose Luis Navarrok: “Lehiatzera etorriko dira”. Iaz baino zortzi bikote gutxiagok jardungo dute aurten.

Idi probetako sarien zenbatekoa bere horretan mantenduko dute: 15.125 euro banatuko dituzte 18 saritan.



ESTI REDONDO | EHNE sindikatuko kidea | Oion (Araba)

“Nire ustez, hor kokatu behar da emakumea, erresistentzian”

EHNEko Esti Redondok berbaldia eskainiko du gaur, baserriko emakumeen lanari buruzko erakusketa zabaltzeko



Zer azaldu gura duzu gaurko berbaldian?

Mundu globalizatu honetan eredu nagusi bi ditugu nekazaritzan: orain dela mende bat garatzen hasi zen sistema kapitalista-industrial (agronegozio izea hartzen duena) eta baserriaren eredu. Lehenengoan, dirua da oinarria, multinazionalak agintzen dute, naturaren suntsipenean du sostengua eta gobernuak, unibertitateak eta finantzek babesten eta onesten dute. Baserriaren ereduak, ordea, hamar mila urte ditu, mundu osoko herri eta kulturek garatutako jakituria du oinarri, naturarekiko hartu-eman horizontalagoak planteatzen ditu, eta bere asmo nagusia ingurukoak era egoki eta osasungarrian elikatzea da. Autonomia aldarrikatzen du besteren mendekotasunaren aldean, eta baserriko

jendearen duintasuna berreskuratzen du, haien funtzioaren garrantzia merkatuaz harago doala onartzen duelako. Hitzaldian sistema biak aztertuko ditugu, eta sistema kapitalistaren garapenak emakumeentzat ekarri duena ikusaraziko dugu.

Badirudi lehenengo eredu hori gailentzen dabilela...

Egia da Euskal Herriko nekazaritzak ez duela garai onena bizi; munduaren banaketa honetan ‘zerbitzuen kontsumitzaile’ bilakatu gaituzte, oinarriko ekoizpenak alde batera utzita. Gaur egun jaten dugunaren %2 besterik ez da Euskal Herriaren ekoizten, eta horrek ahultasunezko egoera larrian uzten du gure herria. Gainera, politika publikoetan eta lurralde antolaketa planetan ez da sektore estrategikotzat hartzen; gure landa lurra porla-

nak bete ditu geroz eta gehiago, eta elikagaiak ekoizteko aukerak murrizten ari dira. Lurraren espekulazioak honetan guztian duen garrantziaz jabetu behar dugu, lurra ez dago-eta landatu nahi dutenen eskuetan. Lurra merkantzia gisa hartzen dugu, eta salerosketa logika baten barruan dago sartuta. Hala ere, ez dira garai txarrenak ere: badira urte batzuk nekazaritza mundutik erresistentzia hasi zela.

Eta egoera horretan, non kokatzen da emakumea?

Badago jendea ereduari buelta eman nahian, badira gazteak berriro ere instalatzeko asmotan, badira emakumeak agroekologia edo baserri eredu bultzatzen eta indartzen ari direnak. Nire ustez, hor kokatu behar da emakumea, erresistentzian. Eta hor kokatu beharko da gizona

ere. Noizbait onartu beharko du azken urteetako inbertsio, makineria eta negozio handiek kalte ekonomiko, ekologiko eta sozial handiak ekarri dizkigutela. Bada sasoiak beste balio batzuk hartu eta emakumeek lehen ere egiten zuten horri arreta gehiago egiteko, eredu jasangarri eta elkartasunezko bat eraikitzeko. Elikadura subiranotasuna lortu nahi badugu, pauso handiak eta ausartak izan beharko dute. Jendarte osoari dagokio pauso horiek ematea, ez nekazariari bakarrik.

Zer paper izan dute emakumeek baserri munduan?

Beraiek izan dira milaka urtetan haziak gorde eta bariatateak hobetu dituztenak, beraiei esker daukagu multinazionalak kendu eta patentatu nahi duten aniztasuna. Beraiek izan dira sasoi-

“Badira emakumeak agroekologia bultzatzen eta indartzen ari direnak”

ko sukaldaritzaren zaindaria, ortuetako arduradunak, animalia txikien zaindaria, teknika eta kultura-balioen transmisioareak, sendabelarren babesleak... Baina, garai hauetan nekazariak orokortasunean baztertua baldin badaude, emakumeek bazterketa bikoitza jasotzen dute. Europako Batasunak ematen dituen laguntzen jasotzaileen %32 dira emakumeak, eta laguntza handien hartzaileen artean %7 bakarrik.

Informa zaitetz! **T. 944 247 566** LAURENDI
Ibañeta de Bilbao, 3, 3. sol. 1. Sela BILBO
www.laurendi.es

ABADIÑON
GANTZA ZELAIETA EGOITZA
(Muntzaratz auzoa)

BEREHALA BIZITZERA SARTZEKO MODUAN!
EROSI ORAIN ETA LORTU BALDINTZARIK ONENAK!
ETXABEAK EDOTA GOIKO ETXEBIZITZAK TERRAZA ZABALEKIN

Honako hauen finantziarioekin: **Ipar Kutxa** **CAJAS**

ileapaindegia
elebe

Iturritxo 2 behea • 48220 Abadiño

BEATRIZ CASADO

ESTETIKA
MASAJEAK
OSTEOPATIA

Iturritxo 2 behea (Elebe ileapaindegia)



Z E L E T A B E
Auzoa Promociones S.A.



1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak
Kalitaterik oneneko materialak

- Etxebizitza guztiek honakoak dauzkate:
 - Sukalde modernoak behar den guztiarekin.
 - Haritzeko tarima eta barruko ateak. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
 - Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.

Erosketa aukeradun alokairua



Iturritxo, 7 behea eskuma • 48220 Abadiño
Tel./Fax: 94 466 89 56

www.zeletabe.com
zeletabe@zeletabe.com

Kirolak

> SURFA



Zapatuan, 09:00etan, Lagako hondartzan batuko dira mozorrotuta surfeatzeko.

Surfzaleen jaialdia hartuko du Plateruenak zapatuan

Dokumentalak, artistak, artisauak, poesia... Surfa bere ertz guztietatik ezagutzeko aukera eskainiko du bihar Durangoko III. Surf Jaialdiak

JOSEBA DERTEANO

Surfa olatu gaineko dantza baino gehiago da. Kultura oso bat garatu du bere inguruan, eta artean, musikan, ikus-entzunezkoetan edo artisautzan mamitu da, besteak beste. Bihar, Durangoko III. Surf Jaialdiak surf-

zaleen bilgune bihurtu gura du, baina surfaren barruko ertz artistiko horiek guztiak ere ezagutara eman gura ditu.

Durangaldeko hainbat surfzaleen artean antolatu dute ekimena, eta aurrekoetan moduan, eguna bitan zatitu dute. Goi-

zean zehar kalera —eta itsasora— aterako dute jaia. Urteroko ohiturari jarraitzeko, 09:00etan Lagako hondartzan batuko dira surfeatzeko. Inauteriak bertan daudenez, mozorrotuta joateko deia egin dute antolatzaileek. Itsasoko olatuei errepasoa

eman ondoren, 13:00 aldera, Durangora itzuliko dira. Bazkalordura arteko denbora Goienkalen emango dute, musikagaz lagundutako poteoan.

Goienkalen batutako alaitasun guztia Plateruena kafe antzokian kontzentratuko dute, arratsaldean. 15:00etan bazkari-tara batuko dira. Joseba Attard jaialdiko antolatzaileetako baten esanetan, “iaz 60 lagun batu ginen bazkaritara eta oso giro ona egon zen; aurten beste hainbeste gertatzea espero dugu”. Bazkaritarako sarrerak Plateruenean daude salgai, 22 euroan (bazkaria eta kamiseta). Inter-

net bidez ere eskuratu daitezke: www.plateruenasarrerak.eu

Surfeko artisauak

Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, surfaren inguruko azoka txikia bihurtuko da Plateruena. Erakustaldiei dagokienez, Salvador Artaza bilbotarrak surf taula gaineko oreka hobetzen laguntzen duen ‘hand plane’ osagarria egingo du zuzenean. Jupa Soler bakioztarra ere surfaren inguruko materiala lantzen ibiliko da. Sopelako ‘Oficina de echos’-eko ordezkariak eta Iñigo Herrero getariarrak ere euren postuak izango dituzte.

Nathan Oldfielden lan berria erakutsiko dute

Dokumentalgile australiarraren azken lanean Euskal Herriko urak ere agertzen dira



Nathan Oldfield surflari eta zinemagile australiar bat da, surfaren alorrean egindako dokumental eta lanengatik ezaguna. Bere lan berrienak *The Heart & The Sea* du izena, eta surflarien bizimodua islatzen du: familiagaz, lagunekin zein itsasoagaz duten hartu-eman.

Oldfielden aitita euskalduna zen, eta horregatik, Euskal Herriko itsasertzak ere bisitatu zituen lan hau osatzeko. Dokumentala ingelesez da, baina Xabi Irure zarautzarrari esker, euskarazko azpigituluekin emango dute.

Arratsalden zehar, Zutundu Surf eta SUP eskolak iaz Irlandako surfzale gazteekin egindako truke programako irudiekin osatutako lanak ere erakutsiko dituzte.

Poesiak eta musikak borobilduko dute jaia

Luis Tejerinak eta Unai Azkunek surfa eta poesia uztartuko dituzte errezitaldi batean

Durangoko jaialdiak surfa herriarregana ahalik eta adierazpide gehien bidez heltzeko ahalegina egin du aurten, eta horren erakusgarri da Luis Tejerina idazleak, Unai Azkuneraren gitarrak lagunduta, eskainiko duen poesia errezitaldia. Surfa, itsasoa, bidaiak eta bizitza bera izango ditu berba-gai poesia musikatuetan.

Ruben Santonja santurtziarrak, berriz, marrazkien bidez adierazten du berarentzako zer den surfa. Prozesua ikusgarriago egiteko, oinak long

board baten gainean dituela marrazten ditu irudiak. Plateruenean ere, arratsaldea amaitu aurretik artelan bat egingo du hutsetik abiatuta.

Eskaintza horri guztiari, surfaren inguruko materiala zuzenean landuko duten askotariko artisauen postuak gehitu behar zaizkie.

Surfeko artisauak

Surf jaialdiari amaiera emateko, 21:00 inguruan, Steepers taldearen kontzertua egongo da. Sarrera doakoa da.

EGITARUA

- **09:00etan:** Lagan mozorrotuta surfeatzeko deia
- **13:00etan:** Poteoa Goienkalen
- **15:00etan:** Bazkaria Plateruenean
- **17:30etan:** Zutunduren Cross Culture Surf egitasmoko bideoa
- **18:00etan:** Nathan Oldfielden ‘The Heart and the sea’ dokumentala
- **19:00etan:** Oficina de Echosen ‘Al cuerno’ bideoa
- **19:15etan:** Arkaitz Garaitaren bideo lana
- **21:00etan:** Steepers musika taldearen kontzertua

SURF POSTUAK

- Oficina de Echos
- Salvador Artaza
- Ruben Santonja
- Jupa Soler
- Iñigo Herrero

> ERRUGBIA

Sailkapenean azkenengo, errespetua lortzen lider

Sailkapenean puntu barik dagoen DRT-ri loriak eskaini dizkio Hospitalet taldeak: "Plazera da miresteko balioak dituen talde baten aurka jokatzea"



Asteburu biko atsedenaldiaren ostean, BUC Bartzelona taldeak bisitatuko du Arripausueta. Kepa Aginako

JOSEBA DERTEANO

Klub osoak argi zuen jokalaririk gazteak eta esperientziadunak uztartu beharra duen DRT taldearentzako trantsizioko denboraldia zena aurtengoa, nahi eta nahi ez. Baina fitxaketen ordez harrobiaren aldeko apustua egiteak bere ondorioak ditu, onerako zein txarrerako. Alde batek, bigarren itzulia hasita dutenean, Ohorezko B mailako azken postuan daude, bat ere puntu barik. Baina, bestetik, mailaz igotzeko aukerekin dagoen Hospitalet taldeak (Katalunia) honako hau idatzi du bere webgunean DRT 65-12 jipoitu ondoren: "Plazera da miresteko balioak dituen talde baten aurka jokatzeko. Eraitza gutxienezkoa da, behinena errespetua da".

Iaz ozta-ozta lortu zuten Ohorezko B mailari eustea. Aurten, ikusitakoak ikusita, jaitzi egin

go direla ematen du. Peio Urkidi entrenatzaileak dio jokalariek sentitzen dutela zama hori, normala den moduan. Baina taldearen gogoia eta motibazioa go-raipatzen ditu, beste alde batera begiratu beharrean, inoiz baino konpromiso handiagoa erakusten ari direlako. Esaterako, Hospitaleten aurka entsegu bi lortu zituzten, eta bigarrena azken minutuan heldu zen: "Zoriondu egin nituen. Garrantzitsua hori da, ez daitezela behera etorri eta motibazioari eutsi die-

Jokalariek inoiz baino konpromiso handiagoa erakusten dutela dio Peio Urkidi entrenatzaileak

zaiotela", azaldu du Urkidi entrenatzaileak.

William Wallace euskaldunak

Konpromisoa erakusten duen beste adibide bat Asier Perugorriak eta beste jokalaririk batzuek oraintsu sortu duten bideo lan bat da (anboto.org webgunean ikusgai). *Braveheart* filmean, William Wallace heroi eskoziarrak guda hasi aurretik bere soldaduak hitzez adoretzen dituen eszena hartu eta euskarazko mezua txertatu diote. Bideoaren tituluak zortzi minutuko ahaleginaren helburua laburbiltzen du: 'Motibazioa'.

Datozen asteburubietan ez dute partidurik, eta ondoren, BUC Bartzelona taldeak bisitatuko du Arripausuetako zelaia. Durangarrak gudarako prest egongo dira.

> MENDIA

Eski zeharkaldia antolatu du Alpinok hilaren 23tik 24ra

> JOSEBA DERTEANO

Azken urteetako mendi zeharkaldietan, dela elur eskasiagatik, dela eguraldiak ez diolako lagundu, zorte txarra izan du Alpino-Tabira mendizale taldeak. Horregatik, aurten kota altuetara jotzea erabaki dute, elur gehiago aurkitzeko esperantzaz. Aurtengo mendi eski zeharkaldia -otsailaren 23tik 24ra- Panticosako balnearioan eta hango Casa de Piedra aterpetxean egingo dute.

Irteeraren prezioa 50 euro da: larunbateko afaria, ostatua, gosaria, janari poltsa, kamiseta eta igandeko bazkaria. Derrigorrezkoa da federatu txartela erakustea izen-ematea egiterakoan. Informazio gehiago lortzeko honako telefono honetara deitu daiteke: 94 620 31 53 (martitzenak eta eguenak, 20:00-21:00).

> MENDIA

Candanchu eta Jakara eski irteera hilaren 8tik 10era

> JOSEBA DERTEANO

Iurretako Zaldai eta Atxondoko Asuntze mendi taldeek, elkarlanean, Jaca-Candanchura eski irteera antolatu dute otsailaren 8tik 10era. Asteburu-pasaren prezioa 150 euro da. Autobusa, egun birako hotela, gosaria eta afaria, eta, egun birako abonua daude sartuta prezioan.

Izena emateko azken eguna otsailaren 1a da, www.zaldaimenditaldea.org helbidean. Eskatzaileak formulario bat bete eta kontu korronte zenbakia jasoko du helbide elektronikoan. Antzolatzaileek izen-abizenak zehazteko gogorarazi dute. Informazio gehiagorako telefono bat ipini dute: 645 008 307.

ADITUAREN TXOKOA



Juan Carlos Perez

Areto futbola

Anaia pobrea

Beste behin, gazte mailako Euskadiko selekzioak porrot egin du Espainiako Areto Futbol Txapelketan. Katalunia, Aragoi eta Kanariar Uharteen kontra gol zaparrada jasota, ez genuen lehenengo fasea gainditu.

Harrobiaren egoerak etorkizuna aurreikusteko oinarri moduan balio badu, ematen du estatu mailako azkenengo artean jarraitu beharko dugula. Irtenbideak bilatzerakoan, Euskadiko Federazioak taldeei exijitu egiten die, bai, baina ez bere buruari. Gazte mailako klubak sortzen laguntzen du, baina ez die klubei laguntzen. Nondik aterako ditugu talde horiek sortzeko gazteak eta nondik aterako dugu taldeei eusteko dirua? Sasikoak eta Mallabiak ezin izan dute gazte mailako talderik atera aurten; Durangaldean, Elorriok bakarrik eusten dio.

Nire ustez, Euskadin elitteko klub bat falta dela da arazoa. Euskadiko Federazioak lehen mailan lehiatuko litzatekeen klub handi bat sortzen ahalegindu beharko luke, umeentzako eta gurasoentzako erreferentzia bihurtu dadin. Ematen du lurraldekako federazioei eta Euskadikoari futbolak bakarrik inporta die-la eta areto futbola kasik enbarru bat dela. Esaterako, areto futboleko hautatzailea Euskadiren partidua jokatu baino hilabete eta erdi lehenago aukeratzeko dute, partidua ganoraz prestatzeko denbora barik. Posible ote litzateke areto futboleko federazio propioa sortzea? Gure buruzagiei interesauko ez zaielakoan nago.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko eta asteburuetakoko menuak - Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

momotxo
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 94 681 10 06

Hemen agertu
gura badozu
deitu!

94 621 79 02

> **FUTBOLA**

Ligako pitxitxiak eta talderik golegileenak bisitatuko dute Elorrio

Zapatuan, Athleticetik Leioara joandako Ainhoa Antruejo ligako pitxitxia izango dute aurkarietako bat Elorrio futbol taldeko neskek; bere taldeak sartu dituen 75 goletatik 25 berak egin ditu



Elorriok eta lurretakok lehenengo itzulian jokatutako derbiaren une bat. Zalaa Fuertes

> **ANE ELORDI**

Elorrioko neskek Leioako emakumeak izango dituzte aurkari zapatuan. Elorriarrak laugarren doaz, eta Leioa, ostera, hirugarren. Gol gehien egin duen taldea da Leioakoa, eta alde handiarekin, gainera: 75 gol egin ditu, eta bigarren talderik golegileenak 37 daramatza. Gol kopu-

Azken partidua irabazi egin zuen, eta Leioari aurre egiteko indarra eman dio taldeari horrek

ru horren errua, hein handian, Ainhoa Antruejo aurrelariak du: 17 jardunalditan 25 gol daramatza Athletic taldeko fitxatutako jokalaririk.

Joan zen asteburuan Elorriok irabazi egin zuen partidua Orduñaren aurka (0-3), eta horrek Leioari aurre egiteko indarra eman dio taldeari. Izan ere, Elo-

riorriko partidua bi galtzetik zeterren denboraldian lehenengo z. Bata merezita galdu zuen, Erandioko Betiko Neskek-en aurka

Seitik lau partidua galdu dituzte, eta garaipen bakarra lortu dute, lurretakoren aurka

(0-3). Bestean, Peña Athletic Sestaotarraren aurkakoan, 0-2 irabazten joan ostean, azken hoge minutuetan hiru gol sartu zituzten sestaoarrek.

Aurten ez dabilta fin azken minutuetan. Lau partidutan hainbat puntu galdu dituzte partiduen hondarrea gola jasota. Azken minutuetan markagailua euren aldera ekarri ahal izan zuten aldi bakarrenetakoa lurretakoren aurkako derbia izan zen (2-1). Beren aldetik, lurretakok azken hiru jardunaldietan ez du garaipenik lortu, eta sailkapena erdian dago.

